

## ALKATEAREN ERABAKIA

**ZENBAKIA:** 0753

**GAIA:** Atxorrotzeko egunean txosna antolatzeko baimena eskaera.

**ESPEDIENTEA:** 2023UDIR0003

**INTERESDUNA:** JONATAN GALAN ROMERO

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Kultura eta kirolak batzordeak proposatutakoaren bat eginez, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legeak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

### ERABAKI DUT:

**Lehenengoa:** Udalaren eta San Pedro/Intxaurtxueta auzo elkartearen artean lankidetzak hitzarmena sinatzea.

**Bigarrena:** San Pedro/Intxaurtxueta auzo elkarteari tabernako salgaiak erosteko gastatutako diru kopuruaren %75eko dirulaguntza ematea, baina 700 euro baino gehiago ez.

**Hirugarrena:** Udalaren dirulaguntza jasotzeko, San Pedro/Intxaurtxueta bizilagunen elkarteak hitzarmenaren 4.c puntuan aipatzen den dokumentazioa aurkeztu beharko du.

**Laugarrena:** 700 euroko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen 2023ko udal aurrekontuaren 0400.481.334.90.01 partidari egozteak.

ALKATEA



**ESKORIATZAKO UDALAREN eta SAN PEDRO/INTXAURTUETA BIZILAGUN  
ELKARTEAREN arteko HITZARMENA**

**BILDURIK**

**ALDE BATETIK**, Jose Ramon Zubizarreta Alegria jauna, Eskoriatzako alkatea, Eskoriatzako Udalaren izenean, haren ordezkari legez eta horretarako ahalmena duela.

**ETA BESTETIK**,

Andoni Moto Garcia de Salazar jauna, Eskoriatzan Santa Ana auzoan 21 2Eskuma bizi dena, NAN zenbakia 72841164A duena, eta San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkartearen izenean.

Bi aldeek hitzarmen hau egiteko eskumena eta gaitasuna onartzen diote elkarri eta, beraz

**ADIERAZTEN DUTE**

Atxorrotzeko eguneko jaia, Eskoriatzan, maiatzaren lehenengo domekan ospatzen da. Jai hori oso errotuta dago herrian, eta eskoriatzar zein kanpotar ugari biltzen dira egun horretan Atxorrotz mendi tontorrean.

Eskoriatzako Kultura batzordeak egun hori ospatzeko hainbat ekitaldi prestatzen ditu eta Atxorrotzen jartzen den tabernari esker, tontorrera hurbiltzen den jendeak goiz-goizetik dauka aukera bertan salda beroa, edariak, pintxoak eta bokadiloak hartzeko.

Aurten taberna hori San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkarteak jarriko du, eta egun horretako irabazi guztiak elkarteak burutzen dituen ekitaldi eta jaiak laguntzeko izango dira.

Eskoriatzako Udalaren ustez, Atxorrotzen taberna bat jartzeak aberastu eta osatu egiten du egun horretako jai-egitaraua, baina udalak berak ez dauka modurik taberna hori berak bakarrik ustiatzeko. Horregatik, hain zuzen ere, eskatzen die San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkarteari lan hori egiteko, batez ere kontuan izanik zertara bideratzen dituzten irabaziak. Udalak, bere aldetik, konpromisoa hartzen du tabernak sortutako gastuen zati bat bere gain hartzeko.

Azaroaren 17ko 38/2003 Diru-laguntzen Lege Orokorreko 22. artikuluan, besteak beste, jasotzen da dirulaguntza zuzentzat joko direla toki erakundeen aurrekontuetan nominatiboki aurreikusita daudenak, eta laguntzak ematerakoan horiek arautzen dituzten arauetan eta hitzarmenetan jasotakoaren arabera eman beharko direla.

Eskoriatzako Udaleko 2023ko aurrekontuetan San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkartearentzako 700 euroko dirulaguntza nominatiboa aurreikusten da.

2020ko martxoaren 17an, Eskoriatzako Udalaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan onartu zen eta Udalbatzarrak 2022ko abenduaren 20ko Osoko Bilkuran hartutako erabakiaren bidez eguneratuta dago. Plan horretan ildo estrategikoak jasotzen dira, eta horietako lehena "KULTUR DINAMIZAZIOA" izenekoa da.



Lerro honen J ekinza San Pedro eta Intxaurtxuetako bizilagun elkartearentzako dirulaguntza izenduna da, eta bere helburua da elkarte horri diruz laguntzea Atxorrotxen jarriko den ongintza helburu duen taberna gutxienezko etekinak izango dituela bermtzeko.

Horrenbestez, Eskoriatzako Udalak eta San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkarteak lankidetzaz hitzarmen hau sinatzea erabaki dute, honako klausula hauen arabera:

### **KLAUSULAK**

#### **Lehenengoa: HITZARMENAREN XEDEA**

Hitzarmen honen helburua da Eskoriatzako Udalaren eta San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkartearen arteko lankidetzaz bultzatzea bi erakundeon indarrak batuz Atxorrotzeko eguneko jai ekitaldiak antolatzeko.

#### **Bigarrena: HITZARMENAREN BALDINTZA OROKORRAK**

- a- Hitzarmena 2023. urterako izango da. Dena dela, bertan jasotzen diren akordioak betetzen ez badira, sinatzaileek hitzarmena amaitutzat eman ahal izango dute. Horretarako, hilabete lehenago idatziz jakinarazi beharko zaio beste aldeari hartutako erabakia eta horren zergatia.
- b- Eskoriatzako Udaleko ordezkaria une bakoitzean Udaleko Alkate-Lehendakaria izango da, eta aldatzen bada, ez da derrigorrezkoa izango beste aldeari jakinaraztea. San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkarteak, berriz, idatziz jakinarazi beharko du beren ordezkariaren aldaketa, izendapena egiten den unetik gehienez ere 15 eguneko epean.

#### **Hirugarrena: TALDEEN BETEBEHARRAK**

a.-) San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkarteak konpromisoa hartzen du Eskoriatzako Udalarekin batera lan egiteko Atxorrotzeko eguneko ekitaldiak prestatzen.

b.-) San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkarteak ongintzarako taberna bat jarriko du Atxorrotzeko zelaian, honako baldintza hauek bete beharko dituen:

- 1.- Behar diren segurtasun eta oreka baldintzak bete behar ditu instalazioak.
- 2.- 6 kiloko hautsezko su-itxalgailu bat jarri behar da, balioanitzduna, suteen aurka babesteko.
- 3.- Inguruak une oro garbi-garbi egon behar du.
- 4.- Edari alkoholduen salmenta eta kontsumoa arautzen duen araudia bete behar da.
- 5.- Tabernarekin lortutako irabaziak ongintzarako izango dira soil-soilik.
- 6.- Tabernan jarriko diren kartel, ohar, prezio zerrenda eta antzerakoak euskara hutsean, edo euskaraz eta gaztelaniaz egongo dira. Ele bietan idatzitakoetan euskarari emango zaio beti lehentasuna, testuaren kokapenaren bidez (euskarazkoa gainean, eta gaztelaniazkoa azpian), nahiz letra tamainaren bidez (euskarazko testua handiago). Edonola ere, Udak Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango da argitaratu beharreko edozein testu itzuli edo zuzentzeko.

Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania direnez, San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkarteak Eskoriatzako herrian euskararen normalizazioan urrats bat gehiago emateko asmoz, eta herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzearen, ahalegina egiteko konpromisoa hartzen dute tabernan zerbitzatzen egongo den jendeak euskaraz hitz egiten ere jakin dezan.



7.- Taberna prestatu eta ustiatzeko erantzukizuna San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkartearena izango da.

**Laugarrena: ESKORIATZAKO UDALAREN BETEBEHARRAK.**

a.- Ongintza helburu duen taberna honi laguntzeko eta gutxieneko etekinak izango dituela bermatzeko, Eskoriatzako Udalak diru-ekarpena egin du 2023ko aurrekontuaren kontura. Ekarpen hori tabernarako salgaiak erosteko gastatutako diru-kopuruaren %75ekoa izango da, baina inola ere ez ditu 700 € gaindituko.

b.-Hartutako konpromiso ekonomikoari aurre egiteko, dagokion aurrekontu-izendapena egin da 2023ko aurrekontuan.

c.- Udalaren ekarpena jaso ahal izateko, erakundeek honako dokumentazioa aurkeztu beharko dute aldez aurretik Udalaren Kultura Arloan:

- Jardueraren memoria.
- Diruz lagundutako jarduerarengatik izandako diru-sarrera eta gastuen balantzea. Balantze hori organo eskudunak onartuta eta erakundeko idazkariak ziurtatuta egon beharko da.
- Idazkariak presidentearen oniritziarekin egindako ziurtagiria diruz lagundutako jarduerarako jasotako diru laguntzei eta gainerako sarrerei buruz, horiek balantzean jasota edo jaso gabe egotea kontuan hartu gabe. (sarreraren jatorria eta zenbatekoa adierazi beharko da).
- Jarduerak sortutako gastuen zerrenda sailkatua honako hauekin: hartzekodunaren identifikazioa, faktura zenbakia edo froga-balio baliokidea duen dokumentua, zenbatekoa, fakturaren data eta ordainketa eguna.

Gastu horiek honela justifikatuko dira:

Jardueragatik egindako gastuen jatorrizko fakturak (ordainketa egiaztatuta) behar bezala beteta,. Diruz lagundutako jarduera osoarengatik aurkeztu beharko dira fakturak.

Fakturen edo ordainagirien data jardueraren exekuzio aldiaren barruan egon beharko da. Exekuzio aldiaren aurreko data duten fakturak bakarrik onartuko dira programaren jarduerak garatzeko aurrez ordaindu behar izanez gero.

Fakturek, gutxienez, honako hauek izan beharko dituzte:

- Faktura egiten duen enpresa edo pertsona fisikoaren datu guztiak: izena, helbidea, IFK edo NAN.
- San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkarteak ordaintzeko jaulkitako fakturak izan beharko dira, eta bertan jaso beharko dira bere izena, helbidea eta IFK, kontzeptua, unitateak, koste totala unitateko, koste totala eta BEZa banakatua edo barne den, faktura zenbakia, jaulkipen data eta ordainketa modua. BEZa salbuetsita duten operazioetan hori egiteko arauaren erreferentzia jaso beharko da.

Ez da onartuko fakturarik pertsona fisikoen izenean.

- Erakundearen legezko ordezkarien zinpeko aitortpenak, tabernarekin lortutako irabazi garbiak zertan erabiliko dituzten azalduz (zenbatekoak eta hartzaileak garbi adierazita).

Aurkeztutako dokumentazioa ikusita eta Kultura eta kirolak batzorde informatzaileak egindako proposamena entzunda, Alkateak udal-ekarpenaren zenbatekoa erabakiko du eta ordaintzeko agindua emango du.



Ordainketa egin eta gero, 2023ko azaroaren 15era arteko epea egongo da tabernaren irabaziak zertan erabili diren frogatzen duten dokumentuak aurkezteko (banku-transferentzia edo hartu izanaren agiria). Dokumentazio hori ez aurkezteak, emandako diru laguntza kentzea ekarriko du.

**Bostgarrena:**

Euren kideen erruz San Pedro/Intxaurtxueta bizilagun elkarteak taberna jartzeari edo laguntzeari utziko baliote, ez lukete Udalaren dirurik jasoko eta hitzarmena indarrrik gabe geratuko litzateke zuzenean.

**Seigarrena: GORABEHERAK**

Hitzarmen hau interpretatzerakoan zalantzarik sortuz gero, Kultura eta kirolak batzorde informatzaileak eskumena izango du haiei buruzko erabakia hartzeko. Plenoak hartutako erabakiek administrazio bidea agortuko dute.

Aurretik aipatutako guztiarekin ados daudenez, bi aldeek hitzarmen honen kopia bikoiztua sinatzen dute, hasieran agertzen den toki eta egunean.